

Euskararen Foru Zerbitzua 2010eko Urteko Plana

euskaraba.com
arabako euskararen ataria



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

sarrera

Aldundiak 2010-2013 aldirako Arabako Euskararen Plan Estrategikoa onartu zuen 2009ko azaroan. Plan honetan 75 jarduera agertzen dira lau urte horietan garatzeko bere aurrekontuarekin eta guzti.

2009ko abenduaren 17an Euskararen Foru Zerbitzuaren Aholku Batzordearen bilera izan zen Artium Museoan eta bertan 2010erako Eragin Esparru bakoitzetik bina helburu eta launa jarduera lehenetsi ziren.

Jarraian datoz lehenetsitako helburuak eta ekintzak, bakoitza bere Eragin Esparruan kokatuta eta aurrekontua zehaztuta.

2010eko Helburuak eta Ekintzak

1

Komunikabideak eta iK T-AK.

47.500 euro

Arabako eskuragarri dauden euskarazko komunikabideak gehiago kontsumitzen laguntzea gizarteko jarrerak kontuan hartuz eta komunikabideek horretarako duten interesean oinarrituz

1.1 Hitzarmenak egin aldizkariekin / egunkariekin euskarazko harpidetza sustatzeko.

- * **Mantangorri** aldizkaria Arabako Lehen Hezkuntzako eskoletan
- * **Badok** Webgunea
- * **Mintzalagunen** arteko harpidetzak ahalbidetu: *Berria*, *Aizu*...
- * Kuadrilla bakoitzean hainbat aldizkari-egunkari zabaldu

1.2 *Euskaraba.com*-en, eskuragarri dauden webgune, blog-en...berri eman.

- * Komunikazioa: Triptiko baten banaketa euskaltegietan eta **Mintzalagun** taldeetan.

Gizarte ekimenetik sortzen diren euskarazko komunikabideen egitasmoa/k babestea.

1.3 Suerta litezkeen euskarazko hedabideetako eratze eta sortze saioetan aholkatu eta parte hartu.

- * **Hamaika Telebista**
- * **Aiaraldea.com**

1.4 Komunikabideak” jardunaldietatik ateratako ekarpenak gizarteratu.

- * Euskaraba.com-en bitartez.
- * Bertako prentsaren bitartez.

2

Administrazioa

237.500 euro

Euskarazko eskaria eta eskaintzaren (herritar eta administrazioa) arteko lotura egiteko, gizartean eta administrazioan bideak sustatzea.

2.1. Euskara gehiago erabiltzeko EGITASMOAK

- * Eralan ikerketa lana: Lidergoa.
- * Gaur nahi baduzu euskaraz txartela banatu.

2.2. Ahaleginak egingo dira udal eta Kuadrilla bakoitzak zein bere EBPN garatu eta onar dezala, bai eta hauekin batera egin beharreko erabilera-plana ere.

- * Kuadrilla bakoitzak bere EBPNan oinarritutako Urteko plana adostu eta onartu.
- * 20 ordutako Formazio saioak EBPN en inguruan.

Langileei erabilera gehitzeko tresnak ematea, segurtasuna, erraztasuna eta erosotasuna emateko.

2.3 Lurraldeko Euskara Zerbitzuen sarea sustatzeko lana egin eta osatuz doan neurrian, horien arteko sare integrala osatu. (koordinazioa, estraneta, prestakuntza bateratua Kuadrillatan sor ditzaten sustapen lana egin).

- * Kuadrilletako euskara teknikariak sortzeko diru laguntza deialdia.
- * 20 ordutako formakuntza saioak Lan-munduko eta Hezkuntzako euskara planak aztertzeko Lurraldeko euskara teknikariei begira.
- * Lurraldeko animatzaile soziokulturaleri eta Kultur teknikariei hitzaldi bat euskararen normalizazioaren inguruan.

2.4 Erakundeetako agintari eta sindikatuekin aztertu euskararen erabilerak zer-nolako oztopoak dituen gaur egun eta egoera horiek eraldatzeko aukerak non dauden.

3

Gazteak eta aisialdia

266.898 euro

Euskarazko eskaintza bermatzea eta esparru berrietan zabaltzea.

3.1. Begirale eskolak, kirol federazioak, zerbitzu enpresak formazio saioak eskaini ditzaten (euskararen normalizazioaren inguruan) diru-laguntzak eman (hartzaileak: begirale eskolak, kirol federazioak, Zerbitzu enpresak...)

* Itzarri enpresaren bitartez Koikili, Toquero eta beste euskal futbolari batzuen laguntzaz euskararen erabilera sustatu hitaldien bitartez.

3.2. "Kuadrillategi" ekimena aztertu eta Arabako zenbait herritan / auzotan / ikastetxetan aplikatu.

Euskarazko eskaintza erakargarriagoa/ezberdina izatea gaztelaniazkoa baino.

3.3. Indarrean dauden planen eta ekimenen ebaluazio sakona egin (zertarako sortu ziren? Zer-nolako emaitzekin? Zer onurak eta albo-eraginak? Nola hobetu edo birbideratu?), ekimen horietan parte hartu dutenekin kontatuz.

* Topaketak: AFAk eta Gasteizko Udalak antolatuta Eskolaz Kanpoko Ekintzen inguruan irailan.

3.4. Herri sakabanatu eta isolatuen arazoa neurri batean arintzeko web gune/ blog berria eman (*euskaraba.com*), euskaraz funtzionatzen duten sare zein guneekin gazte eta euskal jendea harremanetan jarritz.

- * Arabako *euskaraba* eta Sare sozialak
- * Kuadrilla arteko bertso txapelketa babestu: sariak / saioak
- * **Extralurtarrak** dokumentala
- * **Kontuz** jarduera(egun pasa txirrindaz familian)
- * **ARIN** kirol aldizkaria, urtean hiru ale
- * **Irrika** zientzia Aldizkaria, urtean hiru ale

4

Euskalduntzea

117.257 euro

Diputazioak epe luzerako plan bat aurrera eramatea.

4.1. Euskaltegiekin lan-hitzarmenak hainbat sektoretan euskalduntzea sustatzeko.

- * Euskara ikasteko eta sentsibilizazio ikastaroak diruz laguntzeko deialdia, HABEK diruz laguntzen ez dituen taldeei begira.

4.2. Matrikulazio kanpaina egin herrietan eta herrietako eragileak inplikatur

- * Komunikazio Kanpaina Araban barrena bi alditan, ekaina eta irailean.

Euskara landu eta zabaltzeko ardura instituzioek ere bere egitea.

4.3. Arabako Foru Aldundiak Kuadrillek eta Udalek eta euskaltegiek elkarlanean gizatalde eta sektore ezberdinetarako ikastaro berezituak antolatu

- * Etorkin elkarteetako ordezkariak euskalduntzeko deialdia.
- * Egonaldiak Kulturartekotasuna sustatzeko.
- * Langraitzeko euskara eskolak.

4.4. Mintzalagun taldeetan inbertsioa egin eta Arabako taldeak koordinatu.

- * Mintzalagunei zuzendutako jarduera eskaintza.
- * Arabako **Mintzalagun** eguna babestu.
- * Mintzalagun taldeetako kideei euskal harpidetzak eskaini.
- * Arabako **Mintzalagun** taldeko koordinatzaileekin bilerak egin eta urtea planifikatu denon artean.

S

Kulturgintza

220.754 euro

Arabako euskal kulturgintzan diharduten elkarte eta erakundeen artean komunikazioa elkar trukatzeko eta koordinazio egokia izateko sarea eratzea.

5.1. Eragileen arteko elkar ezagutza bultzatu, elkarlana bilatu, zeregina definitu eta elkarren arteko komunikazio bidea izan daitekeen webgune bat sortu: *Euskaraba.com*

- * Jardunaldia antolatu **Topagunea**+AFA euskara elkartei eta euskaldunon bilguneei begira.
- * **Gurasolagun** programa pilotoa Gasteizko hainbat ikastetxetan **GEU**rekin.
- * Elkartei zuzendutako diru laguntza deialdia.
- * **Abenduaren 3a**: euskararen nazioarteko egunerako jarduerak.
- * Durangoko Azoka.

5.2. Kulturgintzan diharduten eragileen arteko mahai finkoa osatu eta eskaintza eta beharra definitu Araba mailan, Kuadrilla mailan, herri mailan.

- * **Topagunea** eta AFAREN arteko hitzarmena, Arabako Euskara Elkartearen koordinazioa eta sustapena egin dezan
- * Koldo Zuazoren **Arabako euskara** ikerketa-lana babestu
- * **Gasteiz Kantuz** liburukia inprimatu eta zabaldu
- * **Lagun zoriontsua** liburua argitaratu zinema ikastaroak egin ahal izateko.
- * **HITZA** programa Kultur Etxean, hilabetean behin
- * **ILEGAN** elkartearen inauterietako egutegia babestean

Instituzioen inplikazioa lortzea, kultur eragileen jarduna errazteko eta eurek ere kultur eragike bihurtzeko.

5.3. Udal eta Kuadrilletako Euskara Batzordeburuentzat azpibatzerde bat sortu.

5.4. Udal edo Kuadrilla bakoitzak bere EBPN onartu eta garatu.

* Kuadrilla guztiek Euskararen batzordea osatu eta denen arteko Urteko plana onartu eta aurrera eraman.

6

Familia trasmisioa eta irakaskuntza

65.550 euro

Ikastetxez kanpoko eragileekin elkarlanean aritzea eskolaz kanpo ere euskaraz bizi ahal izateko.

6.1. Ikasgelaz eta eskolaz kanpoko zerbitzuak euskaraz bermatzeko laguntza eskaini.

- * **Bilalan** webgunearen zabalkundea egin izena eman dezan euskaraz lana topatu edo eskaini nahi duen orok, Eskolaz Kanpoko Ekintzetako begiraleei begira.
- * Eskolaz Kanpoko Ekintzetan dagoen euskararen neurketa eta azterketa-**EKE**-Gasteizko Udalarekin batera.
- * **Arabako Bertsozale Elkartearekin** Hitzarmena ikastxeetan Bertsolaritzaren transmisioa sustatu dezaten.
- * Ikastetxeetako ume eta gazteei zuzendutako lehiaketa: Arabako euskararen aztarnak.

6.2. Batzordea antolatu non euskararen eragileak, euskaraz lan egiten duten ikastetxeak eta erakundeak, administrazio publikoko arduradunak eta soziolinguistikako adituak bilduko liratekeen.

Arabako gizarte osoan denon ondarea izan behar duen euskara berreskuratzeko, hezkuntza komunitate osoaren gogoeta, formazioa eta partaidetza lortzea.

6.3. Guraso euskaldunen taldeei sentsibilizazio eskaintzak egin eta talde horiek dinamizatzeko bitartekariak eta baliabideak topatu.

- * **Bularretik mintzora** programan oinarrituta zazpi ikastaro Arabako Kuadrilla guztietan.
- * Kultur Etxean **Guraso Eskola** hitzaldiak irailetik aurrera.
- * Gabonetako katalogoa banatu Araban barrena.

6.4. Praktika on horietako batzuk martxan jarri, Kuadrillatan.

- * Olentzero kanpaina merkatal gunetan Araban zehar.
- * **Larrea** herriaren euskararekiko konpromisoa.



Merkitaritza eta ostalaritza

52.000 euro

Arabako merkatu euskaldunaren eskariari erantzuteko eta dagoena sustatzeko merkatariak eta ostalariak sentsibilizatzea.

7.1. Sariak eman / errekonozimendua landu hizkuntza normalizazio planetan sartzen diren enpresei edota euskara bultzatzen nabarmentzen direnei.

- * **Lazarraga sariak** Irailaren 27an Enpresa munduan euskararen normalizazioan eragiteagatik.

7.2. Merkitaritza Ganbarekin hitzarmena zabaldu /osatu.

- * Hitzarmena **Merkitaritza Ganbarekin**.

Bertako produktu estrategikoen merkatua euskalduntzeko, ekoizleak sentsibilizatzea eta bertara eta mundura zabaltzeko baliabideak ematea.

7.3. Euskarazko harrera egin ahal duten saltoki, denda edota ostalaritza guneei horren berri ematen duen bereizgarria eskaini.

- * Euskaraz egitera animatzeko txartelak sortu eta zabaldu:
_Gaur nahi baduzu euskaraz.

7.4. Euskara Zerbitzutik hizkuntza aholkularitza zerbitzuak definitu eta diseinatu. / Enpresari, merkatari eta ostalari elkarte nagusiekin hitzarmenak egin, elkarte hauetako kideei hizkuntza zerbitzuak eskaintzeko.

- * Kuadrilla bakoitzeko Euskara teknikarien aldetik aholkularitza eskaintza egin:
 - Merkataritza Ganbarari
 - Alava incoming-i
 - Eskatzen duen edonori